

Hezkuntzarako COVID-19 koordinaziorako batzorde teknikoa

2021-2022 IKASTURTEKO 2. BILERA. - 2021EKO URRIAREN 21A, OSTEGUNA

PARTE-HARTZAILEAK:

Nafarroako Eskola Kontseiluko Hezkuntzarako COVID-19 koordinaziorako lan-batzordeak 2. bilera egin zuen 10:00etan, bideokonferentzia bidez. Han ziren ordezkari hauek: Hezkuntza Departamentuaren aldetik, Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendaria, Luis Calatayud Informazio Sistemen Zerbitzuko zuzendaria, Alberto Urrutia Ikuskapen Zerbitzuko zuzendaria; Osasun Departamentuaren aldetik, Arantxa Legarra Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzuko, Aurelio Barricarte Epidemiologiaren Zerbitzuko; Batzorde Iraunkorraren aldetik, LABeko Gorka Bueno, ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEILASEko Arantxa Ruiz Vidorretarekin batera; FSIE-SEPNAko Pilar López Valderrama, ikastetxe itunduetako irakasleen ordezkaria; Herrikoako Noelia Echarri, ikastetxe publikoetako guraso-elkarteen ordezkaria; eta CONCAPAko Teresa Modol, ikastetxe itunduetako guraso-elkarteen ordezkaria. Jorge Lanchas, ikastetxeetako erakunde titularren izenean; eta Antonio Iriarte, idazkaria. María Lourdes García Roncal, Unibertsitateko Zerbitzuko. Iosu Mena, ADIko lehendakaria (Zuzendarien Elkarte). Pedro Rascón Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak ezin etorria adierazi du. Batzordeburu, Manuel Martín Nafarroako Eskola Kontseiluko burua.

Gai-zerrenda:

1. Azken bileraren akta.
 2. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak. Informazio mota berria.
 3. Kontingentzia Plana eguneratzeko proposamenak.
-
1. 2021-2022 ikasturteko 1. bileraren akta (2021eko irailaren 23a, osteguna). Onetsi egin da.
 2. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak. Informazio mota berria.

Informazio Sistemen Zerbitzuko Luis Calatayudek jakinarazi du, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariari dagokionez, egunero gaurkotu eta argitaratzen direla COVID-19ak ikastetxeetan duen eraginaren datuak.

Gaur egun, ikastalde konfinatuen ehunekoa ikastalde kopuru osoarekiko % 0,36 da. HH+LHko ikasle konfinatuen ehunekoa ikasle kopuru osoarekiko % 0,66 da. Uneotan konfinaturik dauden ikasleak 400 dira. Zenbat ikastalde/ikasgela dauden berrogeialdian: 23. Ikastalde konfinatuen ehunekoa ikastalde kopuru osoarekiko: % 0,40. BTEen ehunekoa (HH eta LHko taldeak) ikasle kopuru osoarekiko: % 0,65. Haur Hezkuntzako zenbat ikastalde/ikasgela dauden berrogeialdian: 6. Lehen Hezkuntzako zenbat ikastalde/ikasgela dauden berrogeialdian: 17. DBHko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako, Batxilergoko eta erdi eta goi mailako Lanbide Heziketako zenbat ikastalde/ikasgela dauden berrogeialdian: 0. Zenbat ikastetxetan dauzkaten ikastaldeak/ikasgelak berrogeialdian: 13.

3. Zuzendaritzen eta batzordeko kideen informazio berriak. Jarduera presentziala garatzeko proposamenak. Proposamen pedagogiko eta metodologikoak.



Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendariak jakinarazi du COVID-19aren aurkako materialen hornidurak aurreikusitako norabideari jarraitzen diola.

Herrikoako **Noelia Echarrik** eskatu du, etorkizuneko eztabaidara begira, aldeztu aurretik izateko Osasun Departamentuak bere agerraldietan jakinarazten duen informazioa eta informazio hori COVID-19 koordinaziorako batzorde tekniko kideei igortzeko.

STEILASeko **Arantxa Ruiz Vidorreta**, ikastetxe publikoetako irakasleen izenean diharduena, bat dator Herrikoako Noelia Echarrik adierazi duenarekin. Era berean, positibotzat jotzen du eskolako jolastokietan jarduerak malgutzea.

Iosu Menak galdetu du ea dekretu bat presta litekeen, zeinaren bidez ikastetxeei informazioa emanen bailitzaieke jakiteko zein ikasle dauden txertatuta eta zein ez.

Epidemiologiaren Zerbitzuko Aurelio Barricartek esan du Nafarroan ez dela horrelakorik aurreikusten, hau da, ez dagoela norberaren txertaketa-egoera ezagutzerik, baina bai ikasgela osoarena, eta txertatutako ikasleen proportzioa edo ehunekoa zehaztu litezkeela. Bestalde, arrisku taldeetako irakasleei gripearen aurkako txertoa jartzeko hitzordua ezarri zaiela jakinarazi du. Gainerakoek txertoa jartzen ahalko dute, hala nahi izanez gero, azaroaren 15etik aurrera.

Unibertsitateko Zerbitzuko María Lourdes García Roncalek jakinarazi du bere esparrutik, oraingoz, albiste guztiak onak direla. Osasun Departamentua unibertsitateekin harremanetan jarri zen, COVID-19aren aurkako txertoa hartu ez duten ikasle eta irakasleei txertoa jartzeko unibertsitateetako instalazioetan.

Hurrengo bilera azaroaren 25ean egingen da, osteguna, 10:00etan.

Manuel Martín Iglesias

Batzordeburua